

3.INDUSTRIALIZAZIOA ETA KAPITALISMOA:

Egitura ekonomiko feudal batetatik kapitalista batetara

- Feudalismo garatuan eta Erdi Aroan zehar egitura kapitalista marjinalak ere aurki zitezkeen.
- Stock-a zabaltzeko saiakerak, kapital metaketarantzko joerak protoindustrializazio eta meatzaritza guneetan.
- Funtzionamendu kapitalistak, ordea, ekonomiaren zati ñimiño bat baino ez zuen hartzen.
- Aro Berrian hainbat gertaera (nazioarteko merkataritzaren zabalpena, estatuen zentralizazioa, elkarmenpeotasun ekonomikoaren nagusitzea...) Kapitalismoak indarra hartu.
- Kapitalismoan salgaiak mozkin bat eskuratzeko ekoizten dira kapital ondasunak eta laneskua erabilita.
- Helburu nagusia mozkinak lortzea, mozkin horiek ekoizpen prozesuan berriz berrinbertitzeko à Kapital metaketa.
- Aurrekoa garatu ahal izateko behar-beharrezkoa da merkatu librea. à Ekoizleen arteko lehia bizia sortzen da.
- Lehia etengabea à Garapena beharrezkoa da produkzio prozesuan merkeago eta hobeto ekoizteko. Aldaketak teknologian, antolakuntzan zein politika arloan.
- Helburua ez da gizartearen beharrianak asetzea, mozkin lortzea baizik.
- Kapitalismoan zikloak aurkitzen ditugu, gorabeherak, feudalismoan bezala. Krisiak superproduktzioa kausa sortzen dira eta feudalismoan, aldiz, azpi-produktzioa kausa.
- Kapitalismoaren nagusitzea prozesu gorabeheratsua izan zen. XVII. mendean jada ezarria egon zitekeen Holanda edota Ingalaterra bezalako herrialdeetan, halere, hainbat faktorek izan zuten hor eragina.
- Ekonomi espezializazioa, lanaren banaketa berria, koloniekiko merkataritzaren hedapena, produkzio indarren garapena à Merkatuaren indartzea.
- Produkzio bideen kontzentrazioa gutxi batzuen eskuetan.
- Ekoizle independenteen gutxitzea à Langile soldatapekoen nagusitzea. Landan lurjabeak jornalari bilakatzen dira.

- Produkzio guneen kontzentrazioa, fabrika handien sorrera.
- Industriaren garapena, noski. Badira, halere, industrializatuak ez dauden herrialde kapitalista asko garai hauetan.

ERAKUNDE ALDAKETAK:

- Kapitalismoaren garapena ahalbidetzeko antzinako egitura sozial zaharrak deuseztatu behar ziren. Iraultza Burgesek estamentu gizartea desagerrarazi zuten, klase gizartea nagusitu zelarik.
- Monarkia absolutista: Erregimen parlamentarioak. Gizarteak gobernu kontuetan kontrol handiagoa eskuratu, boterea bereganatu kasu gehienetan.
- Prozesu hauek iraultza herritarrak izan zitezkeen (Frantziar Iraultza), palazio-matxinadak (Japoniako Meji Iraultza) edota prozesu luzeak (Espainia edota Alemaniako kasuak).
- Nagusituz zihoan egitura ekonomiko kapitalista kontraesanean erori izan zen garaiko egitura soziopolitikoarekin. Azpiegitura gainegiturari kontrajarri zitzaion.
- Kapitalismoaren garapena oztopatzen zuten muga instituzionalak desagertu ziren: Kapitalismoa are gehiago hedatu, gainegitura kapitalista ezarri.
- Gobernu burgesek hainbat ekintza garatu kapitalismoaren zabalpenaren mesedetan.
- Elizaren eta herri-lurren desamortizazioa, lur-azpiaren esplotaziorako traben ezereztea, nobleziaren lurren salerostearen ezereztea... : Lurra salgai librea bilakatu zen.
- Joputza edo morrontza ezereztu: Kontratazio askatasuna, edonork edonorentzat lan egin ahal izatea.
- Errege-monopolioen eta gremio-privilegioen ezereztea: Industria askatasuna.
- Merkataritza trabak desagerrarazi (muga zein zubi-sariak eta barne aduanak, produktuei jartzen zitzaizkien tasak...): Merkataritza askatasuna, eskaria eta eskaintzaren arteko harreman hobea.
- Lehen iraultza burgesa Ingalaterrakoa (1640-1688), ondoren AEBen independentzia (1776-1783) edota Iraultza Frantsesa (1789). Gainontzeko iraultzak XIX. mendean zehar. Bi iraultza mota.
- Behetik egindakoa (iraultza progresista): burgesiak, klase baxuenen laguntzaz, boterea bereganatzen du bortizki eta berehala ekiten dio erreformen ezartzeari. AEB, Frantzia edota Belgikan hala izan zen.

- Goitik behera egindakoa (iraultza atzerakoia): Altxamendu ez arrakastatsuak, prozesu luzeak, burgesia aristokraziarekin elkarlanean, aristokraziak ez ditu bere pribilegio guztiak galtzen. Espainia, Alemania edota Japoniaren kasuak.

• Iraultza burgesak ez ziren demokratikoak izan kasu gehienetan. Erregimen parlamentario eta zentsitarioak ezarri (gizon aberatsek bakarrik bozka zezaketen). Beheko klaseen presioa à Erregimen irekiagoak ezarri denborarekin.

Industria-iraultza

• Herrialde batzuetan lehenago garatu (gaurko herrialde garatuak) eta beste batzuetan geroago (azpigaratuak).

• Kapitala eta lanaren baliabideak nekazal jardueretatik industria jardueretara transferitu. Ezaugarriak:

- Fabrika sistemaren (factory system) ezarpena.

- Nekazal emigrazioa à Hiritartze eta urbanizazio hazkorra.

- Bigarren (edo hirugarren) sektorearen indartzea.

- Burgesia eta proletalgoaren bereizketa.

- Ingurugiro arazoak.

• Aldaketa kuantitatibo (produkzio eta populazioaren handitzea, garraioaren azkartzea...) eta kualitatiboak (ekoizpen prozesuen teknikotasuna, gizarte antolaketa berria...).

• Industria-iraultzak kapitalismoaren hedapena ahalbidetu.

• Industria-iraultza modu ezberdinetan ulertu.

- Gizarte aldaketa sakona. (Polanyi, Toynbe).

- Industri antolakuntzaren, hots, fabrika sistemaren nagusitzea. (Marx, Marglin, Mantoux).

- Aldaketa makroekonomikoetan zentratzen direnak, hau da, errenta nazionalen hazkundea. (Kuznets, Rostow, Deane, Cole...).

- Aurrerakuntza teknologikoei garrantzia ematen dietenak (Landes, Mokyr).

• Industria-iraultza terminoa hiru zentzutan hartzen da gainera.

1. Britainiar ekonomiak XVIII eta XIX. mendeen artean zehar jaso izan zituen aldaketan multzoa.

+ Giza indarra makinek ordezkatzeta.

+ Lehengai berrien erabilera (ikatz begetala à mea-ikatz).

+ Energia iturri berrien erabilera.

2. Produkzio indarren eta produkzio-harremanen aldaketa handien finkapena. Prozesu independenteak sortzen dira: frantziar, espainiar edota euskal herritar industria-iraultzak egon daitezkeelarik.

3. Iraultza industrial = Iraultza tekniko handia. Honen arabera hiru industria-iraultza ezberdindu jaso izan dira historikoki.

1) Lehen industria-iraultza. Britainia Handian, XVIII. mende bukaera – XIX. mende erdialdea. Lurrin makina, trenbidea, harrikatza eta kotoiaren erabilera bultzatzaile nagusiak.

2) Bigarren industria-iraultza. XIX. mende amaiera – XX. mende hasiera. Eztanda motorra, altzairuaren siderurgia, petrolio eta horri loturiko industria kimikoa faktore garrantzitsuenak.

3) Hirugarren industria-iraultza. 1960 inguru – gaur egun. Elektronika, informatika, bioteknologia... bultzatzaile nagusiak.

- Industrializazioa: industria-iraultzaren ezaugarrien zabalkuntza, oraindik bukatu ez den prozesua.
- Leku askotan ekoizkin industrialen eskaerak gora egin, ekoizpenak gora egin, produktibitatea, teknologia... handitu. Hainbeste lan esku behar ez den une bat ailegatzen da. Desindustrializazio prozesuak sortzen dira.

NEKAZAL IRAULTZA:

- Nekazal arloan emandako aldaketa teknikoen multzo bat. Produktibitatea handitu: Posiblea laneskua eta kapitala beste sektore batzuetara transferitzea.
- Honen bitartez kapitalismoa ekoizpen-harremanak landa-eremuan ezarri.
- Ikuspegi teknikotik aurrerapen nabariak.
- Ongarrien erabilera geroz eta handiagoa (hasieran naturalak eta 1830tik aurrera kimikoak).
- Bazka-landareen sarrera laboreen artean.
- Ganadua ukuiluetan gordetzea.
- Hazien aukeraketa.
- Mekanizazioa (tresneria berrien sarrera).
- Lurraren txandaketa gero eta konplexuagoak.
- Honen guztiaren ondorioz ekoizpen mailaren igoera nabarmen bat jaso izan zen.

- Ikuspegi sozialetik ondorio guztiz bestelakoak.
- Lur sail eta jabetzen kontzentrazioa. Jabetza handien sorrera eta txikien desagertzea, hots, latifundismoa.
- Lurren hesitzea.
- Herri lurren salmenta eta usurpazioa.
- Nekazaritza-enpresen sorrera eta hedapena.
- Jabego kolektiboaren atzerakada eta pribatuaren nagusitze progresiboa.

Indibidualismoaren aurreratzea.

- Morrontza eta joputza desegin à Nekazal proletalgora (jornalariez osatua) agertu.
- Ikuspegi ekonomikotik ondorio onak.
- Ekoizpenaren handitzea à Goseteak desagertu eta hiriak hobeki elikaturik egon.
- Mekanizazioa à Laneku behar txikiagoa à Nekazari ohi askok hirietara jo industriari jardutera.
- Lurjabeen errentetatik kapital zirkulatuzailea sortu, nekazaritzan berrinbertitu edo industriari bideratuko zena.
- Landa industria ekoizkinean eskatzaile bilakatu: tresneriak (goldeak, makinak...) zein ongarri kimikoak. Per capita errentak gora egin landan à Nekazal jardueran zirauteen jantzi eskariak gora egin.
- Eskualdearen edota herrialdearen arabera prozesu hau maila eta bizkortasun ezberdinetan jaso izan zen, kontinentean mantsoagoa izan zen Britainia Handian baino.
- Trenbidearen garapena à Garraioa azkarrago à Eskualdekako nekazaritza arloko espezializazioak garatzeko aukera.
- Industrializazioak merkatu berriak ireki nekazaritzari (Kanada, Australia...).

Ondorio demografikoak

- Trantsizio demografikoan sartu ziren industrializazioaren bidean sarturiko herrialdeak.
- Heriotza tasen mailaren jaitsieran eragin zuten faktoreak: elikadura hobekia, higiene mailaren goraldia, medikuntza arloko aurrerapenak...
- Jaiotza tasen mailaren jaitsieran eragin zuten faktoreak: haur hilkortasunaren jaitsiera (hainbeste hiltzen ez direnez ez da beharrezkoa hainbeste ordezkatzeko ere), bizitza-mailen hazkundera, hezkuntza maila, emakumea lan merkatuara batzea, antisorgailuen nagusitzea...

- Heriotza tasak jaiotza tasak baino lehenago hasten dira jaisten à Populazio goraldi handiak zenbait momentutan.
- European populazioaren eztearen ondorioz XIX eta XX. mendeen artean milioika lagunek emigratu behar izan zuten Amerika edota Ozeaniara nagusiki. à Europar ekonomiaren hazkundera; jende gutxiago zegoen, ergo, aberastasuna hobetu banatu zitekeen.
- Herrialde garatu gehienek euren trantsizio demografikoa XVIII. mendearen bukaera aldera hasi eta II. Mundu Guda osterako burutu zituzten.
- Herrialde azpigaratuetan trantsizio demografikoa 1950etik aurrera à Populazioaren mundu mailako ezte.

Industrializazioaren gizarte-ondorioak: KLASE GIZARTEAREN AGERPENA

- Gizartearen banaketa bi klase antagonikotan: burgesia eta proletalgora. Estamentu gizarte batetik klase gizarte batera pasatzen da gizateria.
- Antzinako artisauak, hirietako pobreak, lurrak galdu eta nekazaritzan lanik ez zuten jendea... : Proletalgora.
- Industria-iraultzak sorturiko aberastasunak ez ziren, bistan denez, eurenengana zuzendu, langile espezializatuengana izan ezik.
- Industria-iraultzaren ostetik euren bizi kalitatea txarrago: lan-baldintza txarrak, ordutegi luzeegiak, soldata baxuak, pilaketa...
- Bi joera euren bizi baldintzen inguruan.
- + Baikor edo optimistak: Historiako garai zehatz batzuk kenduta (Guda Napoleonikoak kasu) langileen bizi maila hobetuz joan izan da. Ebidentzia kuantitatiboak erabili hori baieztatzeko: populazioaren hazkundera, per capita errentaren goratzea, soldata errealean igoera.
- + Ezkor edo pesimistak: Langileen bizi mailak ez zuten ia hobera egin. Datu kualitatiboak erabili hori baieztatzeko: bizi-kalitateari buruzko datuak, fabrika eta auzoen giro txarra, lan-baldintza eskasak, ordutegi luzeak... etab.
- XIX. mendearen bukaera aldera produkzio mailen goraldiak eta kolonialismoak aberastasun maila handiak sortu zituzten, aberastasunok gizarte klase baxuenetaraino iristea posible izan zutelarik langileen bizi baldintza hobetu izan ziren nolabait.
- Langile mugimenduaren garrantzia.
- + Sindikatuen (trade unions) sorrera.
- + Kartismoa Ingalaterran. Langileentzako bizi eta lan baldintza hobetaz aparte gizonezkoen sufragio unibertsala eskatzen zuena.

+ XVIII eta XIX. mendeen arteko zubian Luddismoa. Makinen suntsitzean oinarritua.

- Nekazari txiki edo ertain aberatsenak, industria euren aurrezkiak inbertituriko artisauak, Verlagsystem delakoan murgilduriko zein nazioarteko merkatariak... à Burgesia industrialia.
- Oso gutxi izan ziren behe-behetik hasi eta gizarte maila gorenetara iritsi zirenak (self made men delakoak alegia). Inbertsioak egiteko gutxieneko kapital bat behar zen.
- Hasierako fabrikak sortzeko ez zen kapital kantitate handiegirik behar eta familiako aurrezki gutxi batzuekin, kreditu ez formalekin, ezkonsariekin... posiblea zen enpresa txiki eta autofinantzatuak sortzea gero handituz joango zirenak.
- Sozietate Anonimoen, hots, enpresa handien sorrera mugatua zegoen (1720ko Bubble Act). Trenbidearen sorrerak muga horiek deuseztatu.
- Bankak rola oso ahula izan zen industrializazioaren garapenari dagokionez. Industria, hasiera batean behintzat, ez zuen bankaren beharrik izan garatzeko.
- Kapital mugikorra (lehengaiak, soldatak...) finantzatzeko epe laburreko kredituak izan ziren erabilienak garai hartan, baita ohiko merkataritzaren zerbitzuak ere (truke letrak...).

3.1 BRITAINIAR INDUSTRI IRAULTZA:

Britainiar industri iraultza

Britainia Handiko Industri Iraultza (1760-1830) lehenengoa, eta horren ondorioz, berdingabe edo bakarra izan zela esan daiteke, egile batzuentzat Industri Iraultza terminoa bakarrik bertan aplikatu daitekeelarik

Industrializazio prozesu guztiek B.H-koa izan zuten eredu, eta baita erronka ere, B.H-n inongo kompetentziarik gabe geratu baitzen.

Industrializazioak fabrika-sistemaren nagusigoa ekarri zuen, makinak giza-abilezia eta ahalegina ordezkatzeko hasi ziren.

Britainia Handia kontinentetik desberdintzen zuten faktoreak: harrikatza zuela, bere sistema politikoaren desberdintasunak, demografia-estruktura “ modernoagoaren” zantzuak, nekazaritza-aurrerapenak, ingelesaren negozioetarako joera, ...

B.H-ko Industri Iraultza eskualde fenomeno bat izan zen (erregio oso aurreratuen ondoan nekazaritzan oinarritutakoak aurkitu zitezkeen)Industri Iraultza honen faktore lagungarriak aldaketa demografikoak izateaz gain, Nekazaritza Iraultzarenak ezin ditugu ahaztu (aurreko faktorearen eragile nagusietako bat). Nekazaritza Iraultzarekin (XVI. mendetik zetozen aldaketa mantsoen ondorio) lan-esku eta merkatu zabalagoak izatera iritsi ziren, kasu askotan “populazio-soberakin” ugari sortu eta emigrante askoko herrialdea bihurtuz. **MERKATU ZABALAGOAK ETA LAN-ESKU UGARIAGOA.**

Nekazaritza Iraultza gizarte mailakoa ere izan zen. Parlamentuaren legeen bitartez hesitze prozesuak eman ziren, produkzio eta jabetza ustiatzeko zabaletara eramanez eta nekazari txikiaren egoera okertuz nabarmen.

Industria Iraultza honetan kontsumo ondasun merkean produkzio industrial berrian oinarritutako prozesu bat eman zen.

Atzerri-merkataritzaren garrantzia ezin dugu ahaztu, kolonietako trafikoz gain (honek gainera barne-merkatu zabalean eragin izango zuen), eskualde trafikoa, beste europar estatuak merkataritza, ... guzti honek emandako irabaziek ahalbidetu zuten ondorengo Industri Iraultza.

Industrializazioak batez ere barne merkatuarekiko bultzada ikaragarria suposatu zuen, populazioaren hazkunde eta merkatuari lotutako jendetza eraginez.

MERKATU NAZIONAL BATERATUA

BRITAINIAREN ERRAZTASUNAK:

-geografikoa (garraiorako erraza, ubide, errepide eta ondorengo trenbideek oraindik gehiago erraztua, eta defendatu eta isolatzeko ezinhobea),

-lehengaien hornidura erraza (kuprea, kaolina, harrikatza, ...),

-barne-aduanik ez egotea,

-politikoki XVIII. menderako monarkia parlamentarioa (klase kapitalistaren eraginpean zegoena),

-alfabetizazio maila handia eta kontinenteko gizarte antolaketa libre eta irekiagoa.

Intelektualen egoera nahiko autonomoa zen, hauek asmakuntza ezberdinak egiteko gai zirelarik, horren adibide dugu James Watt.

FACTORY SISTEM:

Industri Iraultzaren eragile nagusietako bat teknologi aldaketa bizkorra izan zen. Ondoren faktore teknologikoek fabrika-sistemaren ezarpena baldintzatu zutelarik.

Sektore modernoa hazten zihoan heinean, sektore tradizionalak ere hazkundera eutsi zion, nahiz eta maila txikiagoan izan. Kasu askotan sektore modernoak eman zion aurrera egiteko aukera tradizionalari.

-Kotoiaren irute eta ehunketak XVIII. mendearen hasieratik ari zen zabaltzen Ingalaterran:

-Lehenengo iruteko makina roller spinning machine, 1738an Joh wyattek eta Lewis Paulek egin. Ez zuen arrakasta handirik izan.

-1764 eta 1768an James Hargreavesek Spinnin Jennya asmatu zuen, lantegi domestikoetan ezartzeaz gain, fabriketan ere jar zitekeena.

-Richard Arkwrightek 1768-72 artean waterframe, ur indarrez mugitzeko egin.

-1779an aurreko bien abantailak batuz rulle- jenny delakoa asmatu zuen Cromptonek.

-Lehenengo ehundegi mekaniko eraginkorra 1785ean atera zen baina gizarte-erresistentzia handiak ez zion zabaltzen utzi

-Lehenengo Lurrin-makina XVIII. mendearen hasieran asmatu zen, lerrozuzeneko mugimendu bertikalduna (Savery eta Newcomen modelokoak). Baina asmakizun erabakigarriena **James Watten makina** izan zen, 1769 eta 1784 artean garatua, higidura zirkular eta probetxagarriagoa zuena. Hauek eraginkorrak ziren eskala handietan.

“Fabrikaren jaiotza, kapitalaren eta lanaren geroz eta diferentzia handiagoak markatuko ditu”

ONDOREN, KAPITAL-ONDASUNEN INDUSTRIA:

Gainontzeko zuntzak XIX. menderako ere hasi ziren industrializatzen. Hauekin batera baita beste arlo desberdin eta berri batzuk ere: Kimika, injenieritza, makinagintza, ...

B.H-ko Industri Iraultzaren trilogia: kotoiak, harrikatza eta burdinak

Siderurgiaren egoera XVII. mendetik geroz eta zailagoa zen, baina 1709an harrikatza kokearekin ordezkaturik, ondoren puddler delako erreberbazio labearrekin (burdin fabrikak egurraren menpekotasunaz askatu eta ikatz meategien ondoetara eramanez) eta azkenik industrializazioaren zenbait asmakizun bertan aplikaturik (lurren-makina esaterako), egoera hobetu eta burdingintzaren eskariak gora egiteari ekin zion.

Horrela Britainia lehenengo nazio siderurgiko bihurtu zen, ondoren Bessemer bihurtu (Neilson, 1825) eta Thomas sistemarekin (1878), gorenear egoten lagundu ziotelarik. Hala ere 1870erako lidergo hau kolokan jartzen hasi zen Alemania eta A.E.B zirela eta.

Trenbidearen zabalkuntza eta lurren-makinaren honekin batera garraio bizkorrago baten eskaintza handitu zuten.

INDUSTRIALIZAZIOAREN HEDAKUNTZA:

XIX. mende erdialdea herrialde batzuk industrializazioaren atarian zeuden jadanik.

Europako zenbait eskualdeetan ingeles eredu jarraitzen zuten fabrika modernoak ezartzen hasi zirelarik. Hala ere industrializazio eredu nahiko desberdinak eman ziren lurralde bakoitzaren arabera.

Toki gehienetara Britainiar ereduari iristen kostatu zitzaion, 1790 eta 1815 urte arteko isolamendua eta denboran zehar kontinentean eta baita Estatu Batuetan izandako protekzionismoaren aldeko mugimenduak zirela eta. Hala ere industrializazioa berandu iristeak izan zituen bere alde onak, eta ez ziren gutxi.

Lege zailtasunak izan arren, teknologia transferentziak egon ziren eta pixkanaka eredu beste tokietara iristen hasi zen (kontrabandoa, ...)

Industrializazio prozesu hau eskualde edo erregioa eman zen lehenago ere Britainian gertatu zela aipatu dugun moduan. B.H-n ez bezala, ESTATUA benetako ekonomia-boterea bihurtu zen.

Hemen ere ezin ditugu ahaztu Trantsizio Demografiko eta Nekazaritza Iraultza

INDUSTRIALIZAZIOAREN LEHEN HEDAKUNTZA:

Belgika:

Industrializazio prozesu nahiko azeleratu eta azkarra. Ingalaterratik gertu, garraioetarako erraztasuna, nekazaritza garapen handia.

B.H-ren aldean industria astunak izan zuen arinak baina garrantzia handiagoa. Bankaren protagonismo eta estatuaren esku-hartze ekonomikoa ere oso handiak izan ziren.

Frantzia:

1870ean ezin da guztiz industrialia kontsideratu, nahiz eta industrializazioaren ildoan egon.

Bultzadarik nabarmenean XIX. mendearen azkeneko laurdenean izango du.

Harrikatzen urritasuna, ikatz eskasia, ... baliabide hidraulikoen ustiakuntzak izan zuen benetako garrantzia, gainera trenbidea nahiko azkar zabaldu zen (Britainia Handian baina mantsoago) eta elektrizitatearen erabilpenak aurrerapena ziurtatu zien,

Hazkunde ekonomiko biziago bat ziurtatu zuen 1890erako eta L.M.G. bezperan nazio industrializatuenetako bat bihurtu zen.

Suitza:

Bere abantailei probetxua ateratzen asmatu zuen, populazio langilearen kualifikazio handi eta baliabide hidrauliko ugariari esker. Indar hidraulikoz gainera elektrizitatearen zabalkuntza izugarria izan zuen.

3.2.1. Estatuaren bultzadapean: Alemania eta Errusia

Estatu aparatuen protagonismoa gero eta handiagoa.

Alemania:

-XIX. mendearen erdialdean oraindik ere herrialdea pobrea zen, arrazoia nagusiak: nekazarien egoera feudala (pixkanaka kapitalismora egokitzen joan zena) eta zatiketa politikoa.

-XIX. mendearen erdialdetik aurrera hazkundearen azelerazio bat eman zen, industria astunari dagokionez batez ere. Estatuaren bultzadaz gain, natura baliabideen oparotasun, populazioaren hazkunde azkarra, garraioen hobekuntza, hezkuntza maila altuak.

-Estatuak hala ere ez zuen osotik defendatzen liberalismoa, zentzu askotan protekzionismoa defendatzen jarraitu baitzuen

Errusia:

- XIX. mendearen azken herenean industrializazio prozesu azkar bat izan zuen, baina horrek oso herrialde desorekatu bihurtu zuen ekonomiaren ikuspuntutik.
- Estatuaren inbertsio eta bultzadak ezinbesteko izan ziren.
- XX. Menderako industria kontzentrazio oso handiak zituzten.
- Natura baliabideen oparotasun ikaragarria zuen arren zenbait oztopo ere izan zituen, batez ere nekazaritza munduan. Nekazaritza erreforma oso mantso joan zen, horrek eros ahalmen gutxiko nekazalgo bat sortu zuelarik. Aipatu beharra dago atzerriko kapitalei emandako erraztasunek asko lagundu zutela. KONTRAESANEZ BETERIKO INDUSTRIALIZAZIOA.

3.2.2 Europako periferia

Late comer, “berandu iritsitakoak”: **Portugal, Espainia eta Italia**. XIX. mendean nekazari-estruktura oso atzeratuekin zeuden, hazkunde natural txikia eta emigrazioarako joera izan zuten, huts egin zuten industrializazioa errotzeko orduan eta egitura aldaketa sakonak bultzatzerakoan.

- Eskualde mailako polarizazioa handia zen (Katalunia, Hego Euskal Herria, Piamonte ,...)
- nazioaren gehiengoa nekazaritza nahiko atzeratu batean oinarritzen zelarik
- Astrohungariar inperioa hazkunde orokor oso mantsokoa, ezberdintasun nabarmenak izan zituena. Egitura feudalen desagerpen berantiarra ezin da ahaztu.
- Eskandinabiarrak**, XIX. mendearen bukaera arte nekazaritza-abeltzaintzan, baso ustiapenean eta arrantzan oinarrituak zeuden.
- Herrialde atzeratuak, 1880tik industri garapen finko bati lotuta egon zirenak.
- Eskualde espezializaziora egokitzen asmatu zuten. Kokapen geografiko ona zuten, hezkuntza sistema egokia eta aurrerakuntza nabarmenak eman zituzten nekazaritza arloan.
- Atzerri merkatuek garrantzia izugarria izan zuten, honek industria ezberdin eta askotan aurrerapenak ekarri zituelarik.

3.2.3 Europatik at: Estatu Batuak et Japonia.

Estatu Batuek XIX. mendean hazkunderik ikusgarriena izan zuten.

Hazkunde demografikoaren iturri nagusia bertakoen hazkunde natural altuan zetzan, honek barne-merkatu izugarria eman ziolarik.

1880-90eko hamarkadetarako munduko lehenengo industri nazio bilakatu zen.

Natura oparotasuna itzela, teknologi berriak asmatzeko eta ezartzeko presio eta bultzada garrantzitsua.

Merkatuaren zabalera handia izan arren, bere botere federal indartu eta batuaren politika protekzionistek ez zuten askorik lagundu kanpora begira.

Japonia, XIX. mendeko Europaz kanpoko industrializazio eredu bakarra dugu.

Garapen feudal nabarmena izandako ekonomia bat zuen, merkataritza europarraren eraginetik isolatuta egon zena.

Meiji iraultzak Estatu indartu eta monolitiko bat sortu zuen, Estatuaren esku hartzea erabakigarria izan zelarik.

Nekazaritzaren gainean zerga nahiko gogorrak ezarri zituzten industrializazioa finantzatzeko kapitala lortzeko asmotan.

L.M.G. ostean industria sektore txiki baina ondo oinarritutakoa zeukan.

Aberastasun diferentziak izugarriak dira gaur egun ere garai hartako prozesuen ondorioz, batez ere europarrak diren eskualde eta ez direnen artean (kasu batzuk kenduta). Garapena eta azpigarapena.

-1874tik herrialde txiroek esportatzen zituzten produktuen prezioak jaitsi ziren, herrialde industrializatuek esportatutako produktuekin alderantzizkoa prozesua gertatzen zen heinean.